

81 KO NEGUA



TTiPi - TTAPA

"GU" TALDEAK EGINA

LAGUNTZAILEAK:

- BERAKO HERRIKO ETXEA**
- GURE TXOKOA - S.C.R.**
- CAJA DE AHORROS MUNICIPAL
DE PAMPLONA**
- CAJA DE AHORROS DE NAVARRA**

Solas ongi egingatik,
euskeraz leitzen eta eskribitzen
erakutsi ez dizuetenei,
bihotz bihotzez

LEGEAK

Euskeraz ongi leitu nahi baduzu,
kontuan eduki itzazu lege hok.

it= tt; t, tt leitu behar da, aintzinean "i" duenean.
adibidez: iturri = itturri

in= ñ ; n, ñ leitu behar da, aintzinean "i" duenean.
adibidez: egina = egiña

il= ll; l, ll leitu behar da, aintzinean "i" duenean.
adibidez: oilasko = ollasko

ea=ia ; ea, ia leitu behar da, hitz azkenean.
adibidez: atea=aia

oa=ua ; oa, ua leitu behar da, hitz azkenean.
adibidez: astoa =astua

zb=zp ; b, p leitu behar da aintzinean "z" duenean.
adibidez: ez bada etorri = ez pada etorri

zd=zt ; d, t leitu behar da aintzinean "z" duenean.
adibidez: ez da etorri = ez ta etorri

Euskalerrin jayo naiz
Jaunak ala nairik,
Esker miloika
Mesede onengatik,
Ez nazazu atera
lur maite ontatik
Ludi guztiyan ezta
hau bezelakorik.

Euskaldunan elea
txukun ta garbiya,
Gizon jakintsuantzat
Da zoragarria.
Ez dakite ez nondik
Ez nola etorriya,
Noski Jaunak guretzat
Zerutik jetxiya.

Nere ama gaxua
Egiyaz ona zen,
Damuz gogoratzen det
Aspaldi ilbaitzen.
Bi gauza erakutsirik
Luditikan jua ze,
Jaungoikua maitatu
Ta euskera jolasten.

Gurasua bazera
Umetxuan jabe,
Sayatu alde zuna
Gaxo oyen alde.
Jarri bide onian
Egin Jainko-zale,
Erakutsi euskera
Asko bada obe.

Erderaz ari zaite
Erdaldunarekin,
Bakoitzaren elean
Beste arrotzakin.
Bañan baldin-bazaude
Euskaldunarekin,
Beste denak utzita
Gure euskarakin.

Zure elea utzita
Bestena jolasten,
Gaizki asi zerala
¿Eztezu ikusten?
Zure loretegiyan
Lapaitzak aldatzen?
Burutik gaxo zaude
Sendatu len-bailen.

Euskalerrin jayo ta
Euskera gaiztatsi?
Euskaldunan izenik
Eztezu ibazi
Eleak jakin arren
Zazpi edo zortzi,
Euskaldunak bear du
Euskera lenbizi.

Euskalduna naizela
Gogoratutzian,
Atsegiña sartzen zait
Biotz biotzian.
Euskaldun bat ikusten
Dedan bakoitzian,
Maitasuna sortzen da
Gu biyon artian.

Euskalduna da nun nai
Ongi ikusiya,
Txiki txiki tandikan
Dezu ikasiya,
Eraman nai badezu
Bizitza egokiya,
Izan Jaungoiko-zale
Ta euskaldun garbiya.

Danak alkar arturik
Sayatu gaitzen,
Gure ele maitia
Ludiyan zabaltzen.
Ya bada bertatik
Asitzen geraden,
Euskeraz jolastuta
Euskeraz idazten.

I. Larramendi

-Euskera

maitatu-

Su-ondoan aditu ditugun ixtorioak

Lamixeneko erreka onduan den -
etxe batean, gertatua orain -
dela urte haunitz.

Bazuten haur ttiki bat. Haurren
ama bere amaigarrori erran zio-
n:

-Haur hau, ez zait batere gure
haurra iduritzen dela.

Amaigarroak erran zion:

-Hori hagitz abudo ikusko dugu.
Orduan paratu zittun su ondoan
hirureun arraultze:

Siaskatik haurrak burua altxa-
tu eta erran zuen:

-Hirueun urte ba ttit eta ez -
dut egundaino , su ondoan ho--
rrenbertze eltze ttiki ikusi.

Orduan, amaigarruak ezpela har-
tu ta harekin ioka:

-Ekarrak gure haurra.

Lamiak ekarri zion haurra eta
gelditu ziren kontent.

Bein batean beratar gizon bat,
Sarako hostatu batera sartu zen
bere lagunekin. Galdetu zittuz-
ten kafia.

Kafe txarra ateri zuten ta, ba-
tek galdetu zion hango etxeko -
andriari:

-Nork egin din kafi hau?

-Mik, zer dik?

-To, nere amak hirugarren -
egin aldian hori binon obia e-
gitten din.

Lagun batek erran zion:

-Orduan, kafia paratzen ahal
duzu itxian.

-Nola paratuko diuk kafia?, -
lehenbiziko bi egin aldiak be--
rak edatenttik eta... hirugarre-
na izaten duk guretzat.



Orduan sosik ez baitzen, or-
dun edozein haurrari bi sosko -
bat edo sos bat, sosko ogia ta
sosko olata ta sosko xokoltia -
berendu ederra zen...ta orain -
bi soskin ze ematen diozu?. Sos-
ko olata bat ederra zuzun eta -
sosko xokoltiak beti ekartzen -
genituen...ola luze...nahiko be-
rentzeko ongi, sosko ogia re bai
xokoltia plata batin bilua, bi
sos, ogia ta xokolte erosteko e-
man zuten.

Orain gauzak hagitz ganbitu
dire...gizon batek ere ze irauz-
ten zuen?...Gu espostu gineli--
kan zinko zinkuenta irauzten zu-
en suan arita gizonak. Hamabi
ordu egunin. Eguneko zinko zin-
duenta 1.924 urtian. Jornala ho-
geitamar duro. Suan aritzen ba-
ziren hogeitamabost duro ta ola
izaten zuten hilautian. Hura ai-
sa joaten zen...suan ari dena -
behar zuen litro bat ardo ta ja-
tera re..suan aritzeko e?.

Labrantza pixka bat espostu
orduko hartu gunun ta ni landan
hura lanean, esnia, zerria hilt-
zen genuen, olluak ta..orduan
etxeke guziek bazuten behia.

Hiru ondoko bizi lagunak, -
frantsesak genituen, lehenoko -
Frantziko gerra denborian eto--
rriak. Ikaragarri jende ona zi-
ren. Batek erraten zuen, harek
nahigo zuela hemen pastela ja--
ten bizi bino, Frantzian opila
utsakin bizi. Urtero joaten zen
hilaute bat pasatzera Frantzira
eta haraterakun beti erraten zi-
ran "beno, zerbait arropa baldin

bazu, joan behar dut heldu den
hilautian Frantzira". Ta behin
batean hauxe erranta nik, "bai
semiri egin behar diot traje -
bat binon, igual da, etortzen
zarenin" ta: "ez gara gehigo -
etorko", eman zidan kolpe bat
ikaragarria.

Espostu ainzinin Donionara
oinez joaten ginen, ta han ja-
ten genuen plaian bakallua ta
tomatia. "Beti" han bazkaldu -
sosa batzuket. Zenbait biaje -
egiten gunun. Gero espostuta -
ere bai. Oinez aisa egiten bia-
jia, ta gainera "Kargatuak" pe-
darra ta dena handikan...Bai -
nik ordyan aitari trajia, ta -
"ze ez nituen ekarri". Jesus -
Maria! total hamar duro do....
Hogei durokorik ez ziguen eman
behar amak. Beti oinez, bakar
bakarra joaten zen kamion bat
hemendikan, gizonak ta...beno
emakumik igual, binon kamionan
e! suerte bazen bidian, hartzen
ziguten, harek pagatuta.

Bai, dibertu egiten ginen..
Bi Berako mutil, harat joanta
arrautzen ttugu. Ekin etortzen
ba ginen kolonia "onak" erosko
zigutela ta beno, ze kolonia -
eroskoxten ta. Beno honelko to-
kitara, denak, neskak lehenen-
go etortzen baginen, han espe-
tu, ta mutilak etorzen biziren
han espetu...guk eskapo egin..
Gero erratten zuen:"guk hain--
bertze gastatu zuentzat ta -
zuek ez etorri"!! Ekin etorri
koloniangatik? Gu gere gisa e-
derki dibertitzen ginen bidin.

Orain ez da jendia...bueno denak; nire eskolan ez nintzen - hamabortz egun ibili ttikitan. Gero monja frantsestan negu - bat ilili nintzen, hamasei urtetan, hamazpitan leitzen ta - eskribitzen.

Binon erdarz ez genakigun. Osa ba izaten gunun...osaba ari--- tzen zen hazia botatzen, ta gu arto jorran ondotikan, eta botatzen zuen buzker bat ola - "Braubraubrau" !pa los mirones!????

Hamar urtetako segan ta...Iratzek pikatzera ez nuen joan na hi izaten bakarrik, sugiak o.. !jo! bi haur bakarrik bialtzen gaituzten aunistan (aita lanera ta) egitikin baztan, bestetan segakin; gero osaba joaten zen arratsildian auniztan, laguntzera...Orain bezala? eskolan hogeitau urte arte ta?...bai. ..ez, leheneko bizia eta oainguak ez dire igualak je?. Orain berrogei ta hamar mila aldiz - bizi da obekigo jendia.

Labrantzan irautsi ziguten baino...eskolik ez...bueno josten ere negu bat ibili nitzen ta - nik gizonari ez nion...atorra ta galtzak asa egiten nitien. Orain, ba zuen ona horrek:

Jostunak egiten zuen orain konpazio batera, nik galtza pare bat hartzen nuen jositzeko, eta ihondik albada - arratsaldi hartan akauturazko zizun; ez bazunun ordun akautzen, zeunik akautu hura; ez batek hasi ta bertziak akautu.

Aunitz gauza iten genituen !bai! orain ez nuje kaso eginen biño.. !bordatu!, beno loriak ein, izan du zen moda bat, denok sonak bekonduan bordatuak bazala eta.... "zuk eta nik ez dugun punto iguala egiten", eta oioioi ze oihuak eta ze erristak ateitzenxttuen - denak ez zirela..."egiten badu - hiru lagunek puntua, hiruek diferente ateiko dire, bai.

Bertzik eskolan ibili izanen ziren, behinpen hamar urtetan la nera igual hartzenxten. Sagarra ere oktubrian edo horrela. Jotenginen...bazen kalbarioan holko - sagardi haundi bat, itxola ederra zuen, gu haurrak ginen.

Sagarra biltzeko zakuak etorri ezkerro, denbora txarra edo ona zan, bete behar duzu. Beno, gaur zakuak dkarri eta bihar edo etzi eramexte, denak bilu ta. Kamionak eramtttexttuen (sagarra - kantidadia zen lehen hemen) kampora.

Koadrila joaten ginen sagar biltzera. Goizin joan, eta egurdian eramten ziun bazkari ona, - gisado onakin ta...jan...ta arratsaldin berriz. Nagusil haurrari lana gehiago erainazten zion. Bi emakume eginak baziren eta gu - haurrak. Guri hamabostna sos eta hekeri hamabira edo ez dakit ze eman zion. Hek uste tartin pezta bezela...ta ez eman.

ELKARRIKETA
1.904'on jaioa

SUNBILDAR

Laranja dultzia

Laranja dultzia egin nahi badugu, azal mehea duen laranja berexi beharko dugu, ez du "Nabel" izan behar, ez "Boton de Oro" ezta "Sanguina".

Laranjari ebaki batzuk norberak nahi duen neurrian egin eta xurritu. Atorra xuri haundia baldin badu barrenean, kendu nabal batekin poliki. Egur baten gainean nahai den neurrian ebaki. Paze haundia batean ura irakittent kontu. Azalak prestatzen diren denborian, paze ttiki batera bota, paratu suan eta irakitten dagoen ur horretik puskatxo bat bota.

Hamarren bat minutu iduki irakittan; hartu iragazkin bat eta ur hura kendu. Berriz laranja azal hura paze ttikira bota, eta berriro ere ura eman. Zortzi edo hamar minutoz irakitten kontu bigarrren urean.

Berriz ura kendu eta paze ttikira bota azalak. Berriz ur berria eman, hirugarren aldiz, eta hartan iduki egosi arte. Axal hura egosten denean kendu ur guzia.

Laranjaren jugoa dena xehetu, a purtu eta iragazi, xaborrik gabe gelditu arte.

Paze batean paratu jugo hau laranja azalakin batean.

Pisatu zenbat den, eta zenbat laranja jugoa eta axala den hainbertze azukre bota eta irakittent paratu.

Irakin eta irakin kontu, zurezko makil batekin maizki nahasiz

itxeki gabetenik. Gero, loditzen hasten den bezelaxe, hartikan pixko bat plater batera ateri, kutxariaren muturrakin.

Pixko hori hotzera ateratzian gogortzen baldin bada, baztertu eta ez bada gogortzen, irakittent gehixeago iduki.

Gero epela baino beroxegoa delikan ontziak bete. Orain idurittent ba zaio guttixko egina dela, biharamunean ere bertze irakin bat ematen ahal zaio, non eta kontu haundia hartzen den zolari ez itxekitzeko; hortarako zurazko goilareakin beti itzulingurukatu kiskal keratsarik eman gabe.

Ontziak hotzean betetzen ba dire, haizea gelditzen da barrene ab eta dultzia galtzen da. Horregatik erran dugu epela baino beroxegoan bete behar direla. Beti ere haizeren bat gelditzen ba zaio, goilarearen muturrakin ateri.

Zumo hutsakin ere dultzia egi--ten ahal da.

Behar da laranja xurritu edo xurritu gabe bere azalakin delikan estutu. Hura dena iragazi eta aixtin bezela, zenbat jugoa den hainbertze azukre bota. Gero, nahasi eta nahasi, baina zolari itxekitzera utzi gabe. Gero hartu goilariaren muturrakin eta urazukre(almibar), noiz egitten den nabaritzen denean lehengo dultzia bezala ontziak bete.

Dultzia azal egosi hoiekin mingatsaxegoa ateratzen da, aunitzeri horrela gehiago gustatzen zaie. Jugo hutsak azalaren ahogozorik ez duenezgero ez du samintasun hori ere.

BERAN DAGOEN SUNBILDAR NESKATXA
AUNITZ IKASI BATEK ERRANA.

-Olentzero-

Eguberri bezperan, Berako Pilota Lekuan, Olentzero Sari-keta ikusten egon ginen.

Jende aunitz bazen ikusten; haur pila kantatzen, denak, ongi apainduak, behar den beza la jauntzita. Ta zein poliki abesten zuten.

Erran behar dugu jendea hagitx ongi portatu zela, isil isilik, kanta aditzen, egon zela.

Ahi ta...hagitx polita idu ritu zitzaigun, azkenean Olentzero denen artean abestea.

1.-Zaharrentzako sariak:

ARKATZAK (Legikoak) lehenbizi---koak gelditu ziren, 39,5 puntokin.-ITURLANDE (Goniren Etxeak, Eztegarakoak) 36,5.-ALTZETEKO ARTZAIK (Alzatekoak) 33.-TXAN--TXANGORRIK (Ikastolakoak) 32.-

IZARRAITZ (Ez dakigu nongoak) 31;- ZUBI ZABALTARRAK (Zubizabalekoak) IKASGIANK (Monjatakua) 29.-XAGUTXUAK (Monjatakua).

2.-Ttipientzat:

SORGINAK (Monjatakua) 37.-TXEPETXA (Ikastolakoak) 29.-

Erraten dizuegu, ez dakizue neri, erresultado hoiek emateko Juradoak, kanta zaharren polita, Olentzeroren apainketa, eta abeste modua, aunitz kontuan hartu zuela.

Ah! ta ea heldu den aldian paratzen duzuen irudimena (imajinazioa), Olentzeroren olerki libre oietan. Asmatzen ahal direta.

-Parke berria-


Orain, haurrendako badugu parke berria. -Zabuak eta txirristak, dilindan, zabuka, ta bueltaka ibiltzeko, jarri dituzte. Hor bai, orduak jostatzen, egon daitekela!

Tokia franko polita gelditu da. Azpiko aldian eserlekuak paratu dituzte, ta hagitx majo dago.

Hemen, Beran, badugu berriz talde ttiki bat, musika jotzen duena. Urte-berri egunean, plazan aditu geniën, ta naiko ongi jotzen dute. Orain hasi berriak dira. Beratarrak dira iruak. Matiasen semea, Feranando, Serapion iloba, Jabier, eta Migel Artiedan semea, Migel.

Ageri da zaletasuna badutela. Segi de zatela aurrera.

**Musikako
Taldea**



Orain egun batzuk, Herriko Etxeko sabaian, egon ginen; han "jurado" zegoen, zein ziren pintura ta marrazki obenak erabakitzen. Ta batzutan... istilugorriak ikusi zituzten.

Hasieratik, denak arrituta gelditu ginen, hainbertze lan eginak ikusi ta.

Eguberriero bezala, Gure Txokoak, sariketa antolatu zuen, - ta ikastetxe guztietatik marrazkiak eramane zituzten. Eta, han ziren denak, orain berriki egin duten toki eder hartan, denak zabal zabal jarrita.

Ikusi ginuen, aur ttipiek egin zituztenak; hain politak, hola lako sinpleziakin eginak, beren kolore biziakin. Egiatan hagit politik zirela.... baina handikan bi bakarrik berexi behar ta... larriak ikusi zituzten.. nola ez!

Gero, adinakoek eginak ikusi genituen, eta baziren, bai gauz eder, dentetara hogeia, aski ongi eginak.

Bai, ikusten da, badela mogimendua artearen alde, ta jende gazteari, interesgarria idurtzen zaiola, zeren, holako lanak ongi egiteko, lana, lana egin behar den. Baina orain egiten ari dena, geroago nabariko da. Hemen, Beran, izango dugu, jendea sensibilidade haundiakin ta.... horrek aunitz balio du.

Joan baino lehen ikusi ginuen, batzuek, onak izan ta, sariarik gabe gelditu zirela, baina bi bakarrik izan behar sariatuak maila bakoitzan ta... Hurrengo aldian!

Zuek segi aurrera, ola jarraitzen ba duzue, gauza aunitz esateko izango duzue zuen kolore, trebetasuna ta sentimendukin.

Zuek zarete etorkizuna.

Ta handikan pozez beterik joan ginen, gure etorkizuna ikusita.

Sariatuak izan zirenak:

-6 urte arte

1º Aitor Agesta.-Aranaz

2º Xandra Ballesteros.-S.C.Bera

-7 tik 9 arte

1º Ion Irazoki.-A.L.Bera

2º Iosune Artieda.- I.L.Bera

-10 tik 13 arte

1º J.Loyarte.-A.L.Bera

2º F.Iraola.-A.L.Bera

-14 tik 16 arte

1º J.L.Etxeberria.-A.L.Bera

2º Picabea.-A.L.Bera

Gling - glang

Aurten ere, haur mordoxka haundi bat, gling glang eskaka, ikusi dugu. Kale guztiak poztu egin ziren haien oiukin. Ta hain begira, barrango pirpirakin. Nor baitek nere ondoan, bulla gutti ateratzen zela erraten zuen. Orduan badakizue datorren urterako, nerabiak ahal bezain bat bulla ateri!

Hagit ongi pasatu zinu-- tela, ikusi genuen, ta hori ere, ez dakizue oraindik zein importantea den.

Ezkondu eta

Joan den urtean Beran , berrogeita hamalau haur jaio eta hogeitamar beratar hil ziren . Ezkontzak hemezortzi izandu ziren iaz .

Hona hemen urtearen azkeneko hiru hilabeteetan jaio ziren beratar berrien izenak :

Aristizabal Pikabea Inaki.
Urriaren 3 an jaioa .
Gurasoak Florentzio eta
M^a Koro . Ilekuetako 26
garrenean bizi dire .

Sanchez Goia Agurtzane.
Urriaren 24 ean jaioa .
Gurasoak Enrike eta M^a -
Karmen . Eztegarako 13
garrenean bizi dire.

Irizar Ariztia Jaione .
Azaroaren 12 an jaioa .
Gurasoak Leontzio eta
M^a Antonia . Berez En-
tseinen Bordenakoak .

Senper Mazizior Asier.
Azaroaren 20 an jaioa .
Gurasoak Jose Luis eta
Silbia . Dorreako blo -
keetako etxe batean bi-
zi dire .

Martikorena Mindegia Jo-
se Javier . Abenduaren
16 an jaioa . Gurasoak
Frantzisko Xabier eta
M^a Rosario . Berez Mari-
martinekoak dire.

Zelaieta Fagoaga Mikel .
Urriaren 10 ean jaioa .
Gurasoak Frantzisko Xabier
eta Begona . Legiako 7 ga-
rrenean bizi dire .

Alzate Sarratea Felix.
Azaroaren 3 an jaioa .
Gurasoak Manuel eta M^a -
Dolores . Bidasoako 68 ga-
rrenean bizi dire .

Etxebeste Igantzi Eduardo.
Azaroaren 11 an jaioa .
Gurasoak Eduardo eta Mer-
txe . Bidasoako 53 garre-
nean bizi dire .

Ballesteros Zelaieta Isa-
bel . Azaroaren 23 an jaio
a . Gurasoak Antonio eta
Natividad . Berez Oletxe-
koak dire .

Corral Baena Lidia . Aben-
duaren 16 an jaioa . Gura-
soak Andres eta Ana . Ezte-
garako 13 garrenean bizi
dire

berriak

jaio

Garzia Retegi M^a del Campo . Abenduaren
28 an jaioa . Gurasoak Felix eta M^a Josefa .
Legiako 24 garrenean bizi dire .

Agirre Gallego Jonattan .
Azaroaren 16 an jaioa .
Gurasoak Jesus eta Rosalinda
Alzateko eskola berrian
bizi dire .

Cachafeiro Elgorriaga
Miguel Angel .Azaroaren
19 garrenean jaioa .
Gurasoak Manuel eta M^a.
Angeles . Ibardingo "
Venta Manolokoak "

---.---

Joanden urtean azkeneko hiru hilabeteetan hiru hila
beteetan ezkondu zirenak :

.- Andueza Oskoz Enrike eta Igo
a Goikoetxea Mertxe . Gizongaia
Almandozkoa , hogeita lau urte.
Andregaiak Ilekuetakoa, hogeita
bi urte . Urriaren hamazazpian
Inigo Frantzizkok

ezkondu zituen .
.- Jauregi Goikoe
txea Agustin eta A-
girre Maia M^a Jose.

Gizongaia Hondarrä-
bikoa , hogeita sei urte . Andregaiak
Premosakoa, hogeita hiru urte . Urri-
aren hamazazpian Lutxaurraundieta Ga-
brielek ezkondu zituen.

.- Juanikotena Bolaños Jose M^a eta Go
mollon Garzia Dolores . Gizongaia be-
ratarra , hogeitamar urte. Andregaiak
Illuecakoak
(Zaragoza) hogeit
ta bederatzi urte .
Urriaren hogeitalauian
Sarobe Josek ezkondu zitu-
en .

.- Ibargoinen Belaunzaran Pedro M^a.
eta Teletxea Maia M^a Frantziska . Gi-

zongaia Donibane Pa
saiakoa, hogeita
zazpi urte . Andre-
gaiak lesakarra eta
Garaiarren bizi da,
hogeita lau urte .

Azaroaren zazpian Inigo Frantzis
kok ezkondu zituen .

.- Andueza Goia Antonio M^a eta
Intxaurrondo Arrazto Pilar .Gi-


zongaia Donos-
tian jaioa, Be
ran bizi da ,
hogeitazazpi urte. An
dregaiak Gain-
tzakoa , hogeit
urte . Abendu-
aren hamabian
Aizpuru Luisek

ezkondu zituen .

.- Riopedre Alvarez Antoni
o eta Huizi Lopez M^a An
geles . Gizongaia Vi

llanuevakoa (Astu
rias) - Andrega
iak beratarra,

hogeita bi urte . Sarobe Josek ezkondu zituen Aben. 19an



FUTBOL

1982 eko urtea ez da ongi hasi Gure Txokoako futbol taldearendako, bi lehenbiziko partidutan - galdu egin baitu, bat Beti-Gaz-- ten kontra eta bertzea Oiarztu-- nen kontra.

Lehenbiziko partidua Berako - futbol-zelai berrian izan zen, - eta gainera Lesakarren kontra - ari zirenez gero, jende aunitz - etorri zen Berara eta hagitz gi- ro (ambiente)jatorra izan zen.

Partidua ez zen hainen ona - izan. Alde batetikan lurra orain dikan asentatu gabe zegoelako - eta bertzetik haize haundia zela - koz.

Lesakarrak irabazi zuten, baina suertea bere aldera izan zu ten. Gure Txokoak ez zuen galtzea merezi izan.

Hok, izan ziren jokatzaileak:

Gure txokoa: Zelaieta, F. Maritorea, Ugalde, Susi (Eltzaur dia), Yantzi, Alberto, Toñin, Juamanuel, Elizalde, Eltzaur -- dia II, Moreno (Juakintxu).

Beti Gazte: Herrera, Elordi, Juantxo, Agirretxe, Telletxea, Alzugarai, Orube, Maya, Iturria (Senosiain), Sanjurjo, Etxepa re(Kotte Yantzi).

Bigarren partidua, beratarrak, aisago galdu zuten Oiarztua-- rren aurka. Talde gaztea, eta ongi aritzen dena da. Hiru eta bat irabazi zut. Beratarrak ere nahiko ongi arittu ziren.

81-82 ko sasoa Gure Txokoa futbol taldentzat gogorra izan da. Joanden Urrian hasi eta Ilbeltza ondarraino, igandero jo ta ke aritu dire. Lana sorra izan da baina baita ere meritoko lana. Lanaldi horrerri ez diote resultadoak batere lagundu bai na hori suertearen kontua izan da arront.

Partidoak hurbilego gelditzen direlako eta gasolina gares- tia delako Gure, Gipuzkoako ligan sartua dago. Bertze amar e kipo dire eta hok izenak:

Sportin(Herrerakoa), Antigu(donostiarra), Lengokoak(donostia rrak), Oiarztun, Beti Gazte (lesakarrak), Alza, Montecarlo(i--

BERAKO

KIROLAK

rundarra), Iztieta(errenterikoa),Gwendoline(irundarra), Hok de-
 nak primera regionaleko bigarren taldean sartuak dire eta prefe-
 rentera igateko bortz lehenbizikoak elkarren kontra berriz joka-
 tu beharko dute. Gure Txokoa ez da klasifikatu eta konsolazioko
 ligilan segitu beharko du. Partido bat falta dutelikan orain-
 dik, hau da klasifikazioa:

	Jokatuak	Irabaziak	Berdinduak	Gal.	Sart.	G.Art.	Pnt
Sportin	19	12	3	4	43	14	27
Antiguo	19	11	4	4	29	13	26
Lengokoak	17	10	5	2	36	19	25
Oiartzun	19	12	1	6	35	19	25
Beti gazte	19	10	3	6	35	26	23
Alza	19	7	3	9	23	37	17
Montekarlo	19	6	5	8	33	34	17
Roca	18	6	2	10	21	24	14
Iztieta	19	5	4	10	25	43	14
Gure Txokoa	18	3	7	8	17	29	13
Gwendoline	20	0	5	15	17	57	5

Ikusten duzuen bezala Gure Txokoa azkenarrena agertzen zaigu -
 eta oraindik bi partido jokatu gabeak ditu. Bertze gauz bat -
 erran nahi nuen, futbol zelai obratan zegoelako, Gure Txokoak
 kampoan iru partidu jokatu izan behar ditu eta honek ere klasa-
 fikazioan aunitz erran nahi du.

Nik bultzada bat eman nahai nuke, lerro oker hauetatik, aurrera
 joateko gogoak ez galtzeko.

1982 ko urtarrilaren hogeita seian



ZYCLISMO

URTARRILAREN (ILBELTZAREN) 6 an ERREGEEN EGUNA .

Urte batzuk baziren lasterketa hau egiten ez zela eta aurten C.C. Beratarrak ahantzitako goralpenak bizteko asmoz , beregana eskuratu du lasterketa honen prestaketa .

Eguzkia ederra atera zuen eta ziklista pila irteeran . 2.500 pertsonak bazeuden ikusirik giroa ona osatzen . Irabazi zuena DE -- BRAUWER (or. 1 12'46 '') izan zen , belgiar . Bigarrena BLASSER Sui- zakoa . Hirugarrena VIJANDI biz- kaitarra eta honen ondotik gipuz- koar bat , oraingoaz aintzineko mailan dabilena , Jokin MUGIKA (or. 1 14'46 '') .

EUSKAL HERRIKO ITZULIAREN ETAPA BAT ETA BESTE ETAPAREN IRTEERA .

Oraingoaz ez dakigu zein egu- netan eginen den . Hala ere , A - pirilaren hamabitik hamazazpira eginen da .

NAZIOARTEKO IIgn. " CRITERIUM " FELIX ERRANDONEAREN SARIA .

Proba hau adineko pertsonentzat izanen da .

LUIS Ma. APEZTEGIAREN LEHEN ME - MORIALA .

Maiatzean eta gazteentzako iiza- nen da , C.C. Beratarran hiru zi- klista maila honetakoa baitaude .

EUSKADIKO PEDALAREN EGUNA

C. Ekainaren (Garagarri - laren) 27an izanen da. Aur- ten zikloturistak Beran elkartzea behartuak daude , klub guztiak honela era- baki dutelako .

B Pentsatzen da , 1.000 - e- tik 1.500 etara ziklotu - ristek parte hartuko du - tela, hiru zirkuitoetan :
Zirkuitu A 170 km .
" B 120 "
" C 40 "

t -.Aldi berean Berako bes- tetan eta Herriko Etxea - ren laguntzarekin , gaz - teentzat beste proba bat moldatuko da .


r -.Joan zen urtean bezala Agerra eta Ilekuetako zir- kuituetan , beste proba batzuk ere egin nahi dute .

r -.C.C.Beratarrak beti be- zela jarraituko du antola- tzen larunbata eta igande- tako irtenaldiak .

a -.Eta azkenik , 1.300.000 pezetako presoposturekin gauzak , ahalik eta ongi- en atera daitezen saiatu- ko direla diote .

OHARRA : Datu hok gazte - laniaz idatzirik zauden etu guk euskaratuak dire.





PILOTA

Berriaren X. Txapelketa

Urtarrila, Otsaila eta Martxoaren hiletan ospatu zen. Txapelketa honetan maila guztiak parte hartzen dute eta pelota eskuz jokatzeko da.

Afizionatuko mailan, larriko pelotaz jokatzeko da.

Denetara 80 pelotari eta hauengandik 52, 15 urte baino gutxiago dutenak. Hauek dira urtean zehar Gure Txokoa eta Berako koloreak gordetzen dituztenak.

Aurten txapeldunak hauek izan dira:

ESKUPILOTA

Hamar urtera bitarteko:

- Juan Irazoki eta Xabier
- Errandonea.

Hamar hamabi urtekoetan:

- Juan Luis Urkiola eta Braulio Eskagües

Hamabi hamabortz urtekoetan:

- Fernando Irazoki eta Rafael Gonzalez

Hamabortz urtetik goitikoe-tan:

- Sariak banatu gabe gelditu ziren.

PALAZ

Bigarren mailan:

Juan Alzuguren eta J.L. Alzuguren.

Lehen maila:

Patxi Errandonea eta Luis Ma Urkiola.

Bidasoako Txapelketa (Bidasoaren Eguna)

Txapelketa hoentan, berarrak Igantzikoen kontra finala Sunbilan jostatu eta bigarren gelditu ziren.

Nafarroako Herrien Arteko T.

Nahiz eta azkeneko bi urte hauetan finala jostatu (1979an txapeldunak eta 1980an bigarrenak), aurten gure pilotariek ez dute hainbat zorion izan.

Hala ere Berako pelota za-leak harrituak gelditu ziren, Lesakarrak nola gure pilotariek tako bat eraman nahi zuten ikusirik. Jakina gogoekin geratu ziren.

Nafarroako klubentzako T.

Txantreak Gure Txokoa hargit guttirengeatik eliminatu zuten azkenaurreetan.

Beran hiru eta bi irabazi eta Txantrean berriz hiru eta bi galdu zuten. Txantreak zazpi edo gehixeago tangoz Gure T. eliminatu zuten.

Espainako Klubentzako T.

Gure Txokoako pelotariak bai eskuz eta bai herramintaz bigarrenak geratu ziren eta honela lehen mailara goratu ziren. Hauek dira pilotarien izenak:

Miguel A. Sarobe eta C. Pombar, Palaz, Patxi Errandonea eta Pello Irazoki (Maritx), Palaz

motzaz

Ordezkoak: Jose Miguel Lasaga, Urkiola(Leiza) eta Bernardo Agara.

Eta bukatzeko, Berak pilota es kuz izan duen pelotaririk hobere nak aipatzea beharrezkoa da:

Bata Sebastian Oartzabal, txapeldun Espainiako Txapelketan. Ondorioz Euskadiko herrian bestetan jokatu eta profesionalera - igo zen.

Bestea, Ignacio Errandonea, Al kaiagakoa, lehen aipatutakoa. Txapeldun GRAVN Txapelketan eta ondoren Espainiako gazteen txapelduna.

Etorkizuna ona badauka mutiko onek bere buruari begiratzen badio.

Txalo bero bat hemendik, kirola honen alde lan egiten eta eni matzen ari diren guztiei eta honela aintzinerara eraman dezaten - garrantzi handiko kirola hau.



GURE

TXOKOAKO

ZYCLISMO

Gure Txokoako ziklismo sailak aur- tengorako prestatu egin behar dituen egintzak hauek dire : a) Ziklismo eskola "Nafar Federakuntzaren Trofeoan" parte hartzen duelikan Hasberri Kume(Aleuin) eta Haur mailetan. b)"Ign. Trofeo Gure Txokoa"lehen erran ditugun mailentzat , honako modalitate hauetan: Bidea, Erloju Kontra eta Abilezia . c) Pedalaren Eguna herrikoentzat. d) "VIIgn.

Felix Errandonea Oroipena" Gazteentzat. Oharra : Datu hok Gure Txokoak gaztelaniaz emanak dire eta guk euskartua dago .

GUZU

ARA, NOLA XERTATZEN DIREN ARBO- LAK BERAN

Xertatzeko sasoia, arbola erna
tzen hasten delikan izaten da.

Arbola guziek ez dute sasoi -
bera, errate baterako gerezia -
lehendabizikoa eta sagarra azke
nekoa.

Abenduan, sartzen dire urteko
muskilak lurrean, muturra gotti
ageri delarikan. Horrela kontu
behar da, arbola basatia (hazia
atikan ateritakoa, alegia) mugi
tzen hasten den arte, hau da, -
xertatzeko denbora alletzen den
arte. Argi dago, hori lehenago
edo beranduago izanen dela, ur-
te ona edo txarraren arabera.


Orain, arbola xertoa baino -
aintzinago heldu baldin bada, -
xertoa moztu eta berehalaxe xer
tatzen ahal da, lurrean kontu -
gabe.

Xertatzeko denbora beherapena
izan behar du; halere, honetan
badire horrek deus ikustekorik
ez duela erraten dutenak.

Arbola basatia moztu (metro
erditikan metrora bitartean) ar
bolaren haundiera nolakoa nahi
den arabera. Azpiko muskilak -
moztu behar dire eta onborra so
il soilik utzi.

Xertatzeko orea (pasta) behar
da eta era aunitzetara egiten -
ahal da. Horietako bat, argiza-
ri hutsa, galipot eta errexina
puska berdinetan nahastea da. -
Bertze bat, orea prestatua den-
datan erosten da; eta bertzea, -
buztina ta behei kakakin eginda
koa (Labaingo aldian "pekia" -
deitzen diotena)

BERGARRI



Eta gero zer egin?

Onborra erditikan arraildu -
nabal batekin, zabaltzen denean,
ziri (kuña) bat sartu eta naba-
la kendu.

Muskil berria xorroxtu eta mu
turreko begia moztu, eta bi edo
hiru begi bertzerik ez utzi. Ge
ro onborra eta muskila ongi el-
kartu eta azalak elkar ukitzen
dutela utzi. Ziria kendu eta -
muskila ezin ateriz gelditzen -
da. Onborra lodia baldin bada -
izan daiteke ziria kentzean mus
kila edo muskilak (bat baino ge
hiago paratzen ahal baitire) zi
rriztian ateratzea; orduan ziri
ttiki bat utzi beharko da onbo-
rran sartua.

Onborra gurutzean ere arrail-
tzen ahal da, eta lau xertu pa-
ratu.

Gero moztu den arbola oreakin
estali (jakina moztu den lekuan)
eta moztu ditugun begiak ere -
bai.

Xertua buztina ta kakakin egi
ten denean, zapi bateri xuloak
egin lotzen delikan.

Arbola haundi guziek azalati-
kan xertatzen dire, gaztaina -
errate baterako. Mixika ere aza
latik, udan egiten delikan. Aza
lan ebaki bat egin eta hartan -
begi bat xorroxtua sartu eta -
zerbaitekin lotu ez dadila eba-



kia ideki(modu honetan ez du ore arik behar). Gero udaberrian behar xertoak hartzen duenean, arbolak gainetikano moztu.

Ez da egundaino estali behar lurrak gelditzen den arbola basatiaren muturra.

Errana dago: Beti hezurra hezurakin eta pipita pipitakin xertatu behar direla.

Elorri beltzari udaria eta mizpirak xertatzen ahal zaizkio. Mizpirak elorri xuriari ere bai. Elorri beltzari xertatua izan den udareak aunitz irauten omen du.

Aran basatiak xertatu gabe ere, fruitu ederxomarrak ematten ditte.

Madaria elorri beltzari eta xuriari xertatzen ahal zaio.

Lurrak ongi zaituak izan behar dute, behar ditzuzten gorotzak emanez, eritasunak behar diren botikakin sendatuz, adarrak eta fruituak bakanduz. -Kazkabarren kontra ere badi-ttuzte beren aterabideak, ikerearen bitartez.

Ikusten dugunez arbola pizar batzuk eramatea, hagitz garesti izanen litzateke gure baserri eta etxeentzat. Orain azkenian gure lurraren fruituak beti kanpokoak baino hobeak dire, bere sasoiak bilduak baitire - kanpokoak bildu ondotikano on-tzen diren bitartean.

BERAKO HIRU ETXEETIKAN
JAKIN DITTUGUNAK

Arbolak kimatzeke

Arbolaren barrengo aldera doazin adarrak moztu, iguzkia sar da dila, bai eta elkarren gainera heldu direnak ere.


Zer bide eman nahai zaion arbolari alde hartara utzi begiak eta muskilak eta gainerakoak moztu.


Urtero es utzi bortz zentrimetro baino gehiago arbola goitira joaten; beti zabaltzen joan behar du eta ez goiti. Horrela indarra adartara eta fruitutara joanen da.

-Nola, izaten ahal da, bertze leku batzutan horrelako fruitudun arbola, ederrak eta ugaritsuak izaki, eta gure herrian berriz sagardegiak igartzen?.

Bai, gurean bezalako hotz-bero eta eguraldi egiten dituen lekuetan eta guretik hurbil diren lurretan, errate baterako gure mugaren bertze aldean badike fruitudun arbola aunitz ditzuzten bazterrak; gaur den egunean probetxurikan atera nahi badiogu.

Horrela egin beharko bailira -





* * * * *
* **hemengo** * * * * *
Ohiturak * *

Joan zen hamabortzean bera-
pen sasoiari sartu ginen. Eta -
aurten zerria hil gabea dugu.
Etxeko gurasoek zerria nahiko
haundia dela erraten dute eta
hil beharko dugula. Etxeko an-
dreak, pena haundia hartuko du
bainan, ez dago bertze erre-
mediorikan, gero ere jan behar -
baita.

Zerria hil bezperan, arroza
egosi behar da, eta baita tipu-
la, porrua eta perresila pus-
katu ere. Eta ze negarrak tipu-
la xehetzean!!

Gabaz zerria kurrinkaka, -
egun bat osoa jan gabe egoten
baita, eta etxeko andrea eta
haurrak, gero ta pena haundi-
goan.

Goizean goiz, zerri-hiltza-
ilea etxean egonen da.

- "Kafe pixko bat hartuko -
duzu lana hasi aintzinean?"

- "Ba!! Igual"

- "Eta ttantta ere bai, ez-
ta?"

Pizar bat hartu eta badoaie
zerriarengana.

Hiltzeko mahaiari prest dago,
etxeko laguntzaileak zerria -
ixtegitikan ateratzen ari di-
re eta hiltzailea nabala zo-
rrozten.....

Zerriak, zerbait arrotza su
matzen du eta ez du ixtegitika
ateri nahi, baina bortxaz
eta hiltzailearen gantzokin -
mahaira garresika joan behar-
ko du, eta han loturik, hiltza-
ileak zintzurretik nabala sar-
tuko dio.

Laguntzaileak ixurtzen den o-
dola ontzi batera biltzen du, -
gero odolkiak egiteko, eta pix-
kan eta oinaze gogorretan ze-
rria hil da.

Orduan, berehala iratzean -
erre egiten zaizkio gorputzeko
ileak, eta baita hanketako a-
zazkalak aterari ere. Horretarako
iratzea behar izaten da gozo.

Ongi garbitu ondoren, luzaka
ra ideki eta hertzeak eta tri-
pa guztiak aterari egiten zaiz-
kio; gero puskaka ongi ongi -
puskatzen da. Hau egiten den bi-
tarten, hertzeak ongi ongi gar-
bitzen dire, gero lukainkak -
eta odolkiak egiteko.

Lan hok egin eta gero, baz-
kaldu ongi, armoni ederrean, -
eta odolkiak egin behar dire.

Arroza, tipula, ezpeziak, -
eta perresila nahasten dira, -
eta hertzetan sartu ondoren, -
paze batean sartzen dire. Poza
lean ura irakitten ari delari-
kan pixkan pixkan orratza bate-
kin zulatuz odolkia goxo goxo
egiten da.

Gero, berendu-afari eder bat
egin eta bakoitza bere lekura.

Erraten dute, lehenago ika-
ragarritzko juergak egiten zi-
tuztela eta biharamonean zerri
erdia bederen jaten zutela.

Gero zerri puskak, adiskidee-
ri ematen zaizkio, eta hok -
hiltzen dutenean, gauza bera -
egiten dute.

- Guskera Erreza-

Behin batean, baomen zen xakur bat "Lagun" izena zuena. Oso bizkorra zen, eta begi argikoa; eta badakizue zer gehiago? ...ikaragarritzko haginak....."Lagun"en haginak ikaragarriak ziren! Arrapatzen zuen guzia txiki txiki egiten zuen.

"Lagun" baserri batean bizi zen. Eta baserri honetan, gainera, senar-emazteak eta bere hiru seme-alabak bizi ziren. Se meak bederatzi urte zituen, eta alaba zaharrenak zortzi, eta beste neska ttikiak, Miren Ainara, hamar hilabete bakarrik.

Mutilak asko maite zuen "Lagun", eta neska zaharrenak ere bai. Beti berarekin jostatzen ibiltzen ziren. Miren Ainara ere, asko maite zuen xakur baina berak ez zekien oraindik xakurrarekin nola jostatu. Eta aitak? Bai, aitak ere maite zuen "Lagun", eta aunitzetan berarekin eramaten zuen pasiatzera. Eta amak? Ez dakit ba!... Pixka bat maite zuen, baina oso aserre egoten zen gehienetan. Zergaitik? Ba, "Lagun"ek etxean arrapatzen zion guzia puskatzen ziolako.

-Gizona, eman zaiozu xakur hau norbaiti! erraten zion amak aitari.

-Ez, aita! erraten zuen semeak.

-Ez aita! erraten zuen alabak negarrez.

Eta gizona ixilik gelditzen zen; baina ez zuen "Lagun" etxetik kampa botatzen.

Eta badakizue behin batean zer gertatu zen?

Hara:

Aita sorora lanera joan zen, eta neska mutilak eskolara joan ziren; eta etxean ama, Miren Ainara ttikia eta "Lagun" bakarrik gelditu ziren.

"Nik arropa garbitzera joan behar dut" erran zuen amak, eta in guruko erre kara joan zen.


Miren Ainara ttikia bere sehaskatxoan gelditu zen, eta bere ondoan etzanda, "Lagun".

Miren Ainara ttikia bakarrik gelditzen zenean "Lagun" bere ondoan etzanda, zaintzen, gelditzen zen.

Egun hartan bero egiten zuen eta mendiko sugeak itzal bila zebiltzan.

Eta badakizue zer gertatu zen?

Halako suge haundi bat base-



rriko ate zabaletik barrena sartu zen. Hura beldurra! Suge haun di hura, arrastaka, sukalderaino sartu zen. Eta han zegoen Miren Ainara bere sehaskatxoan lo. Eta han zegoen "Lagun" xakur ttikia ere bere ondoan, etzanda lo. Eta han zihoan sugea, gorputza arrastaka, burua tente, sukaldean barrena.....

Eta hala ("Lagun"ek belarri ona bait zeukan) xakurra ernatu zen bat batean. Han ikusi zuen sugea, ixil-ixilik, zuzen-zuzen sehaska aldera joaten.

Eta Miren Ainara lo.

Eskerrak neska ttikia lo zegoela, bestela anitz ikaratuko baitzen gaixoa!

Eta badakizue "Lagun"ek orduan zer pensatu zuen? "Suge honek Miren Ainarari autsiki egiten badio, hilko du". Eta salto haundi bat egin eta sugearen aurrean jarri zen, eta saingaka -asi: au, au, au!.

Baina hala ere sugea aurrera zihoan, eta sehaskatxora igiten hasi zen. Orduan "Lagun" karresika hasi zen, eta saingaka, -au, au, au!; eta hala, sugea Miren Ainarari autsiki egitera zihoala, zapla! bota zitzaion "Lagun" gainera, eta hagin zorrotz haiek saru zizkion lepotik.

Miren Ainara gaixoa, ernatu zen, eta negarrez eta karresika hasi zen. Suge haundia eta gogorra zen, eta "Lagun" eta biak burrukan gogor zebiltzan.

Etxeko andreak errekatik zakurraren saingak eta Miren Ainararen negarrak entzun zituenean ikaratu zen, eta dena utzi ta korrika etxerako bidea hartu zuen.

-Jaungoikoa!-erraten zuen-xakur gaixto horrek nere nexka ttikiari autsiki egin dio, ta ilko du!.....

Eta lasterka eta lasterka zihoan, eta Miren Ainara ttikiaren karresiak haundigoak eta haundigoak ziren.

-Ai! xakur horrek umea hilko dit....Erran diot nere gizonari, xakur hori etxetik botatzeko, egunen batean ume ttikia -hilko duela.....ai ama!

Eta hala, etxeko andrea etxera sartu eta lurrean halako -odola ikusi zuenean, pensatu zuen bere ume gaxoa hila zegoela, eta karresika sukaldera sartu zen.

Eta han zegoen "Lagun" bere mingainarekin Miren Ainara ttikiari arpegia milikatzen; eta han zegoen bere ondoan suge -ikaragarri hura hila. Eta orduan konturatu zen etxeko andrea -zer pasa zen; eta orduan poz pozik "Lagun"eri musu eman zion -eta Miren Ainara ttikia bere besoetan hartu eta bularraren kontra estu-estu egin eta muxu anitz eta haundiak eman zizkion.

Gero, gizona sorotik etxera etorri zenean erran zion:

-Adizu, ez dut "Lagun" inora eramaterik nahi. Hemendik aintzinera anitz maiteko dut. Bera izan ez bazen, gure Miren Ainara ttikia sugeak hilko zuen. Eta horrela gizona aunitz poztu -zen, eta "Lagun"eri maite-maite egin zion. Eta gero, seme-alabak eskolatik etorri zirenean, xakurrari muxu eman zizkioten.

Eta, hala, handik aintzinera "Lagun" etxeko beste senide bat bezala izan zen.

Eta hala ba zen sar dadila kalauzen.

OSASUNA



-Mediku sendaketa; zenbait gogorapen-

Jende aunitz mediku kont-- sultara joaten denean, badi- rudi kontsumokeriak eraginda, joaten direla, botikaz hor-- nitzeagatik alegia. Bertze batzuk berriz, bakardadeaz - edo larrialdiaz estaturikan agertzen direla erran geneza ke, estutasun hori berez na- hiko eritasun delarik.

Egoera hau konpontzeko nor- berak berea paratuz hasi be- harko luke, prolema guzia - bertzeen eskutan utzi gabe - eta kasu honetan hain xuxen konponbide guzia medikuaren eskutan utzi gabe.

Argiago errateko, gorputz- eriari galdutako osasuna be- rriro eskuratzen lagundu be- har zaio, berak galdetzen di- tuenak emanez; eta zentzuga- bekeria iduri du eritasuna - ekarrerazi zuen lehenengo bi- zimodu bera eramaten segit- - zea, eta eritasunaren seina- leak gorde bertzerik egiten ez duten botikak hartzea; ho- rrela geure burua engainatu eginen dugu gero, botikak ut- zi eta berehalaxe berriz ere agertu eginen baitzaizkigu - eritasun seinale horiek.

Errate baterako, harriga- rria da zenbat jende den al- de batetik tabakoa erretzen a- ri dena eta bertzetik anti-

biotikoa eta antitusigenoa hart- zen duena; zuzenbidez tabakoa ut- zi beharko luke. Ezta?. Edota ber- tze persona gizen batzuk alkohol eta urinez prestatutako otorduak egiten dituzten bitartean, koles- terola jausteko pastilak hartu - ariko dira. Ez al litzateke gar- biago urinak alde batera uztea?

Gezurra iduri du! Herri batean bizi eta ziudadetako prolemez - itotzen dugu geure burua. Mendi- an ibili nahi badugu aski dugu - etxetik ateratzea, kimikaz kutsa- tu gabeko janariak(esne, arrault- zak, barazkiak) ere erraz esku- ratzen ahal ditugu. Eta gure be- tiko kanta hau izaten da: asti- - rik ez dugula eta ezin ailetu ga- rela.

Gure gorputzari, bada, bere - zentzua eta neurria bihurtu be- - har diogu, berak galdetzen duen janari aproposena emanez, kirola- ren bat eginez, edozein janariz - asetzera edo baztergarri diren botikak hartzera bulkatzen gaitu- en propaganda gaitzesteko erne - erne egonez.

Beran 1982 Urrilaren hamai- ruan. Gonzalez Xabier, Bera- ko medikuak egina.

OHARRA: Artikulu hau gaztelani- az zegoen eta gure laguntzaile- on batek itzuli du.

ERRE OIHALAK

Berrehun eta berrogei gramo olibazko olio eta ehun larrogei gramo aztunpa azala maxotatan lurrezko eltze berri batean - prexitzan paratu; aztunpa ongi xigortzen denean kanpora ateri eta gelditzen den olio honeri ehun eta hogeitun gramo argizari hutsa gaineratu.

Argizaria ongi urtu eta olio arekin nahasi denean, oraindik beroa dagoelarik, gasa puska (edo harizko zerrendak baldin badire hobe) ongi zabalduak el tze barrenean sartu. Zerrenda hok behin hartan ongi busti di relarik kanpora ateri idortze- ra, ahal bada aztunpazko makil batzuren gainera. Oihal hok, eskuekin ukitu gabe, bi pintze kin hartu beharko lirateke.

Erre oihal hok altxatzeko, "papel grasa" erraten zaion pa peran bilu eta ongi ixten den plastiko edo latazko kaja xun- kun batean sartu.

B
e
t
i
k
o

G
r
e
m
e
d
i
o
a
k



Javel



KULTURA

AIDGOTIRAN

Axular Apeza

"Usuak eztu bertze hegaztinek bezala edatean burua goiti altxatzen. Edan go go duena, abreak bezala, hatsik hartu gabe, kolpe batez, edaten du.

Bertze hegaztinek, edateko, zurka guztietan, ahatarak bako^t zean burua goiti altxatzen dute. Eta badirudi ezen naturale-- zak, berak erakutsirik egiten dutela hala. Zeren nola orduan bataude geldienik, urera beha; eta orduan baitira ihiztariez ere zelatatuak, barrendatuak eta guardiatuak, halatan daude -- hek ere iratzarriak orduan; eta edaten duten ur xorta guztie^u tan ingurunera behatzen dute, eta buru goiti, guardia egiteko bezala, altxatzen dute.

Baina usoak eztu olakorik egiten, haozpez dago ase arteia no, eztu bitarten bururik altxatzen, eta eztu ingururena be-- hatzen. Eta hartan da ageri usoaren inozentzia eta ergelkeria, perilik gehienean baita erhoenik eta antsegabenik".

Irakurri duzuen zati hori, da. Ta herriko jendeari nola -- orain dela 350 urte, gutti goi bizi behar duen, kristau onak -- ti beiti, egina izan zen. izateko, erakutsi nahi dio. Baina

"GERO" liburutik hartua da. ain ongi egina dagonez, ainber-

Pedro de Axular liburuaren tze jakinduria adierazten due-- egilea, Urdazubin (Urdax) jaioa lakoz, denek diote "obra maestrá" zen, 1556 ean. dela.

Sarako erretore izan zen. I Horregatik aukertu dugu AXU-- runean, Leridan, Tarbesen, ta LAR APEZA, gure lehemiziko erre-- Donibane Lohitzun, bizi izan -- bista agertzeko. Bera baino le-- zen. hen beste idazle batzuek izan --

Bere liburu hau, 1643 ean ziren, baina bera izan zen haun -- argitaratua izan amen zen, bera diena. il baino, urte bat lehenago.

"GERO", liburu erreligioso

BEHA= Begira

- Eskerrak

dagonari -

tik hartuak dira.

Liburu honek ekartzen ditu Ignazio Larramendik, Joakin Alda bek, ta P. Roman Dornaku de Berak, idatzi zituzten bertsoak. Iru ak hemengoak ziren, beratarrak. Ta beren olerki politak utzi zi tuzten, gure hizkuntzaren maitetasuna erakutsi nahian.

Roman de Berak. hemengo eleekin, hiztegi bat ere, utzi zuen. HIRU BERATARREN EUSKAL BERTSOAK liburu hau, orain urte bat

"Euskera maitatu" IRU BERATARREN EUSKAL BERTSOAK izeneko liburu-

argitaratua izan zen. Berako Herriko Etxeak ordaindu zuen, ta -
Joakin Goiak, erregalu eman zigun bere lana.

Eskerrikasko denei, asmo ona ta baliotsu honengatik.

Pensatu dugu, ea zergatik ez den hemen azken urtetan egin -
diren kuadro ta marrazki hoberenekin, exposizioi bat egiten; Ho
la ikus diteke, denetara egiten ari den la
na.

Pensatu dugu, herri honetan, antzerki -
talde bat, ateratzen ahal zela. Antzerki-
ak euskeraz adierazteko.

Pensatu dugu, bertze aktibidade ere e--
gin zitekela, euskera kalera eramateko.

HOLAKO GAUZETAN INTERESATUAK BAZUDETE, UTZI EZAZUE NOTA BAT,
PAPER AZAL BATEN SARTUA MACHIARENAN.


ASMOA

Berako-Mugak

Denak badakigu Berak zein he-
rriekin mugatzen duen, baina ez
dugu denak jakinen, muga komunal
hok dauden bazterren izenak. In-
teresarik baldin baduzue, hemen
dituzue:

1.º Bila nueba.- 2.º Bonua.-
3.º Mugarriko Erreka.- 4.º Pos -
ta.- 5.º Xantel Erreka.- 6.º Elt
zaurdiko.- 7.º Eskineko Borda Gai
na.- 8.º Larretxen Borda.- 9.º
Zumalko.- 10.º Mazpila Arrita .-
11.º Pago Eder.- 12.º Harri Ur -

dinko Erreka.- 13.º Amona Gu-
ruztan.- 14.º Borda Leku.- -
15.º Gaztelu.- 16.º Teileriko
Erreka.- 17.º Egista.- 18.º -
Alka ttiki.- 19.º Burkaitza -
20.º Mirandako Biragurutzia -
21.º Uxaneko Malkarra.- 22.º
Monokoharri.- 23.º Soraburu -
Azpia.- 24.º Urdan Zuzta.- -
25.º Bonbordako hariztegia -
26.º Zigardi Behereko borda -
gaina.- 27.º Elazmuta.- 28.º --
Satorko Iturria.- 29.º Listir
keta.- 30.º Nabasturen.



Hemen egin diren bertsoak

OBISPO JAUNARI

Eliz gizon bat agurgarria
Aita Jazinto Argaya,
aspaldikoan begenun denok
zu hemen ikusi nahia
eta nor zeran agertutzeko
ailetu da garaia,
Bastidatikan ateri zaigu
Euskal Herriko artzaia

JOXE BASTIDARI

Joxe Bastida zu jartzen zaitut
oraingo bertsoan aurrena
nere bihotzak kunplitu nahi du
eman dioten ordena.
Esan dutenaz zu omen zera
auzo hontako zaharrena
gure Jainkoak eman zizula
zori onenik hobena.

DANIELERI

Daniel aurtxo etortzen zaigu
txikiena degun partez
aingeru itxuran baino
trabiesoskua izatez
bainan jendia kontentu dago
berriz ere etorri zaituz,
bulla pixka bat ateragatik
maite zaitugu bihotzez.


AMA BIRJINARI

Eguneroko eginkizutan
askotan gabiltz aldrebes
ez egin biharrak eginez eta
egin behar direnak ez.
Gure bizian zuzen ibiltzen
lagun gaitzazu mesedez,
zu bitartez jartzen zaitugu
zeruko Ama Mercedes.

Dornakuko elizaren koru berriaren inaugurazio egunean, auzoko semea Luziano Berasategik egindako bertsoak eta egun hartan erranak.

Dornakun 1981 eko Azaroaren hamabortzean.





BERTSOLARITZA

Halako izenburuz bataiatu nahi nuke aldizkari berri honetarako sail bereizi bat. Aldiro, bertsolaritzaz, zenbait bertsolariz, bertso - ezagunez eta gisa bereko gauzez zerbait interesgarri agertzen saiatuko naiz.

Alde batetatik bertsolaritza bera zer den, zein bere historia, bertsolari historikoak, bertso xelegre eta ezagunak, Bera bertako eta bertze aldetik txoko hau zabal zabalik utzi nahi duen guztiak bere bertsoak argitara ditzan edo gai honetaz nahi duena errattek.

Hala bada has gaitzen poliki poliki eta abiapuntu bezala aukeratu ditut Dn Manual Lekuonaren hitz batzu artikuluzka hau egiteko maiz begiratu dutan liburutik hartuak:(1)"Munduan diren paularik bakane- netako bat bertsolaritza da. Gauzarik bakan eta fenomenorik harrigarri- rrienetako bat.

Gauza bakana, munduan oso bakan aurkitzen delako.



Fenomeno harrigarria, bere baitan - gauza harrigarri harrigarri bat du- lako: bapatekotasuna, inprobisazioa; bertsoa bapatean nentsatu eta bota- tzeko erraztasuna.

Gaur oso herri gutxi da munduan, - bertsolaritza ezagutzen duenik. Ber- tsolaritzak gaur oso zabalero txi- - kia du munduan.

Geroxeago orain dela bi mila urteko Erromatarrak aipatzen ditu, Birgi- - lio olerkari ospetsuaren eskutik, - eta berdin Biblian agertzen diren - Zakarias, San Juanen aita, Simeon - zaharra eta Ama Birjiña beraren Kan- tuak eta gure gaurko bertsoen esti- loarekin parekatzen ditu.

Gaur egungo bertsolaritzaren zabaleroaz ari denean hauxe erratten - du: "Gaur, eñan dezakegu, European gure Euskalerrria dela bertsolari- tza indar indarrean daukan herri bakarra".

Bertsolaritzaren zerbait kutsu daukatenak, badira gure inguruan: - bat edo beste, ez asko: Galizia bata, eta Gales Herria, Britainia - Handian, bestea. Afrikan gaur oraindik badira triburen batzuek... - Hala berean, baita, Asian ere, afganistardarren artean..."Amerike- - tan ere agertzen baitzaizkigu batzuren batzuek..."

Eta honela akabatzen du: "Bapatekotasun jatorra, oso osorik, gure - bertsolariek bakarrik gordetzen dute Europako lurretan. Ez da han- - diuste, ez da harrokeria. Egi egia baizik. Guztiok gara testigu. - Guk ondo dakigu, bi bertsolarik, edozein arratsaldetan ostatu bate- - tan topo eginda, bata kantuan hasten bada, besteak kupida gabe eran- - tzungo diola lehenengoak emandako doinu eta hari berean, eta ordu -

pare batetan arrazoitan aritzeko ere ez dutela kupidarik izango. Dударik ez, bertsolaritza gauza zaharra da. Aspaldiko gauza. Bai na zoritxarrez gure Euskal-Herrian kantatzen zirenak ahoz-ahoz pasatzen ziren eta ez zegoen bertso horiek eta bertsolari horietaz eskribituko zuenik. Horrela bada lehengo bertsolarien izenik ez dugu ezagutzen. Bertsolaritzaren historia berriki eskribitzen hasiak gara, eta liburuetan Zuberoako Barkoxeko Beñat Mardo jartzen dute bertsolari ezagun zaharrena bezala, 16..-1700 urteen inguruan. Lehenagokoen berririk ez dago. Bada zenbait bertso zaharra go herrian gorde eta kantatzen direnak baina ez dakigu nor eginak diren.

Aipatu Beñat Mardo horren ingurukorik ere ez da ezagutzen eta - Historia gehienak hurrengo mendearen akaberan hasten dira. Bertsolaritzaren Historia puskaka agertuz, lehanbizikoari, 1800. urtearen ingurukoari, Fernando Amezketarraren garaia deitzen zaio, Fernando bera izan zelako, dagozin datuen arabera, sasoi hartako bertsolaririk ezagunena eta bere herria, Amezketa, garai hartan bertsolaritzaren "hiriburua". Garai hartan bertsolari ospetsuak izan ziren Fernandorekin batera, Amezketako Zabala, Hernaniko Txabalategi eta Aiako Altzolako Pastor Izuela. Baina bazebilen Fernandoren inguruan bertze zenbait bertsolari ere, eta horien artean hara non agertzen den Beratar bat! Hala erakusten digu garai hartan nonbaiteko bertso saio batetan botatako bertsoak. Bertan saioan parte hartu zuten zazpi bertsolariren aurkezpen edo presentazioa egiten da:

87 BIZKAIKO TXERRIARI ()

"Urrestilgo semea
Bautista Uribarren
Martin Azkarateko
badakit nor den;
Zabala Amezketarra
Zerbait izan arren,
Fernando buruzagi
zuten herrian len;
hau Altamiraren,
BERATAR bat hemen,
ta ni zazpigarren,
kabu Oartzunen...
Orain mundu guztiak
gaitik entzunen."

Moti-go bat migana dago e. horri-a, esplikatuko barnu
txit parre-garri-a. Bizkaian egin dute prueba berria kuzxello.
nikan gabe hietzeko txerri-a era kuztsi diote isli lu
gorri-a.

•88 DOMINGO KANPAÑA ()

Mando baten gari-an Domingo kanpaña, ez di-jo-
a utsi-kan mando orren gaña arzi-an dijoa-na mandoa da
baña gañeko- aere ba-da arzi-ko-a aña Man-do ba.
ten gari-an bestia-ala jai-ña

Bertso hau zeinek bota zuen eta Beratar horren izenik ez dakigu. Nor ote zen gisa hontan eta garaietan bertso kantari ibiltzen zen beratarra?

Uste baino gehiago luzatzen ari naiz eta gaurko hau akabatzeko - eman dezagun beste beratar bertsolari ospetsu baten ezaupide eta, berriz ere izenaren faltan, izen goitia. Historian salto bat eginenez Xenpelar eta bere inguruko garaia ailegatuko gara. 1835-1869. urteen arteko sasoiari gertatzen gara, bi gerra karlisten arteko garaian. Oraingo henetan eta ditugun datuak kontutan hartuz - Oiartzun-Errenteria bailara eta bertan J. Frantzisko Petrarena - "Xenpelar" bertsolaria nabarmentzen zaizkigu.

Xenpelarren inguruan bertsolari aunitz ibilki zen: Xorrola, Pandaritarak, Ardotx bi anaiak, Larraburu, Eperra, Bekoetxia, ... eta hauekin batera deskubritzen dugu, berriz ere, beratar bat "Exkerra Beratarra". Bere izen eta izanez datu gehiagorik gabe erran dezagun lehen aipatutako liburuan bere bertsolari izakera destakatzela. Saiatuko gara beratar ospetsu honetz gauza gehiago ikasten.

Gaurkoz "Exkerra"ren berri izateko hor doaie J. Antonio Bengoetxea Oiartzungo Ugaldetxoko Ardotxeneko "Ardotx" bertsolari famatuak - bota zion desafioa:

"Exkerra Beratarra,
zuretzat goraintzi:
lehen kostunbre zaharrak
etzaizkitzu ahantzi:
Sakelak hutsak eta
poltsan diru gutxi,
inbustieriz mantendu,
bertsuetan jantzi...
Horla bizi denak ezтик
hiltzia merezi.

Exkerra, nahi badezu
nerekin jarduna,
seiñalatu itzazu
hilla ta eguna;
herritikan hartzazu
nahi dezun laguna,
bertsutan jokatzera
atoz Oiartzuna:
etzaizu paltatuko
zeinek erantzuna.

Eta hurrengo bat arte, rebistak segi dezala aintzinera indar eta sasoiak! Herriko bertsolari zaharrak, gure artean ez dagozinak, eta euren bertsoak bilatzen saiatuko gara.

Gaur egungoak, ixilik bainan herrian zaudeten zeuen gazteago denboratako bertsolariak animo eta plazara! Erakusle faltan baikara gaurko gazteak!

Eta gazteenak, ez lotsa! Plazan edo paperan ez utzi bertsoan ari tzeari, kontu horreari!

KAPI

89 EXKERRA BERATARRA ()

Exkerra beratarra zuretzat goraintzi lehen kostunbre zaharrak etzaizkitzu ahantzi sakelak hutsak eta poltsan diru gutxi, inbustieriz mantendu, bertsuetan jantzi... horla bizi denak ez dik hiltzerik merezi.

Zer arraio zaio seme- gertatzen nire ari!

Haur baten bizitzan zenbait es-
tutasun pasatzen dira. Nahiko
ezberdinak dira jaio ondoko le-
henbiziko gau-egunak eta 13-14
urteko nekeak. Maiz pentsatzen
dugu: Lau urte bete ditu nire
semeak, txarrena pasatu zait.
Bai ote? Eta geroko istiluak,
ezin lokartua eta mutila edo -
neska ezin ulertua?

Zenbat aldiz pentsatutako: Zer
arrio pasatzen zaio haur muti-
zu honi? Hamairu urte besterik
ez, eta honen futekoak onak di-
ra!

Ni honen adinean... Matelezu--
rreko bat ematen banioke...

Egia esanez, ez da, ez, momen-
tu ona 13-14 urteko adina. Gu-
re neska edo mutilak ez daki -
zer nahi duen eta, maiz, gura-
soek ere ez zer egin.

Oraindik atzo tran-
kil aski bizi gi-
nen, mutikoak edo
neskatxak eskolan
lan egiten zuen, -
esandakoa laister
betetzen eta amari
behar bada aitari,
bere pentsamentuak
ideiak eta senti-
mentuak kontatzen
zizkion.

Bat-baten, itxuraz
aldatu zaigu, bes-
te bat dirudi.

Gurasoek egiten edo esaten du-
guna beti gaizki zaio. Ez da -
azertzeko manierarik! Batzuen-
tzat zuria dena, bestearentzat
beltza.

Lan egiteaz utzi du. Nahiz es-
kolan, nahiz etxean, orduak pa-
satuko lizuzke hilargira begi-

ra, begiak zuri-zuritan. Asper-
tzen omen da. Matematikak ez -
omen du deusetarako balio -ber-
dinik mekanikoa izateko-. Grama-
tika kedarra baino beltzagokoa
dela, eta Fisika eta Geografia
eta...

Irakasleak edo maisuak nolakoak
diren, obe ez aditzea. Hau "kar-
ka bat dela, hura beste mundu -
batetan bizi dena, harateagokoa
ezin tratatu bezalakoa, hain ko-
peta ilun eta aserrekorra baita.
Ez da bat salbatzen.


Egunak eta egunak igarotzen, -
orain ez du deus esaten! Zer -
gordetzen ote du bere barrenean?

Gurasoek jakin nahi dugu. Han-
dik edo hemendik laguntza eskei-
ni nahi diogu, baina ez da deus
egiterik, ez baitu zirritorik -
irekirik uzten. Eta uzten balu-
ke ere, nola egin?

Nahiz eta neska edo
mutil bakoitza mun-
du berezi bat izan,
bere pertsonalitate
eta izateko manera
ez berdinekin, pun-
tu batzuk kontutan
har ditzakegu.

Adina honetako alda-
ketak normalak dira.
Guri ere, gazte den
boretan, berdin ger-
tatu zitzaigun, na-
hiz, behar bada, ez
garen hartaz oroi--

tzen. Neska edo mutilak haur -
egiteak alde batetara uzten ari
ditu eta hoiien lekua betetzeko
zerbait berri bila dabil. Itsu-
ka, nohiz behinka argi izpi ba-
tzuk, sentimendu forman ikusiz:
maitasuna, zuzentasuna, justii--



zia, adiskidetasuna, edertasuna

...

Gurasoek prozesu hau guztia -
ulertzen badugu, lehen pauso -
edo urratsa emana izanen dugu.
Baina gehixeago ere egin dezakegu:
seme edo alabarekin hitz e-
giteko beti prest garela adierazi
behar diogu; bere ezinegona,
tristurak eta poztasunak serio
hartzen ditugula ere.

Egunak pasa ditezke guregana -
etorri gabe, gurekin solas egin
gabe, baina gure guraso lana -
han egotea da, ixilik, baina be-
re ondoan. Bat-batean laguntza
beharra izan dezake, edo, ez ba-
da besterik, bere portatzeko ma-
nera gurearekin konparatzeko as-
moa.

Ez baginake han, eskutik utzita
bezala bere burua senti lezake,
eta orduan eta gehiago guregan-

* * * * *

dik alde egingen du. Ez da lan
erraza!

Azkeneko, kontutan har dezagun
ez duela semeak edo alabak gu
bezalakoa izan beharrik, per-
tsona berri bat dela, bizian -
bere bidea aurkitu behar duela.
Bide hori, gehienetan ez da gu-
rea bezalakoa izanen, eta ez -
da ere, guk nahi duguna prezi-
soli. Nola nahizik, bere burua
bortxaerazten irakatsi behar -
diogu, erresponsabilitaterik -
gabe ez da deus lortzerik eta.

LANDAXORO

* * * * *

PROEMEN

KAIKO, GIMONDI!

Gu solas ta solas
hi irri ta irri.
Hi guri,
gu hiri,
elkarrerri begira.
Hitzak sobran.
Hik konprenditzen nauk.
Nola erran

joan haizela

HEMEN eta gurekin
baldin bahago!
Kaixo, Gimondi!



Etxeek erraten dutena

* * * * *

1.638 ko uztailaren 16an, Luis XIII Frantziako errege - zelarik eta Felipe IV Espainiakoa, Frantziako tropek Berako herria erre egin zuten; etxe gehienak zurezkoak zirenez gero, ia denak erreta galditu ziren. Herritarrak, beren hazindak eta salbatu ahal ziztuzten puskak hartu eta mendera ihes egin ondotik berriz itzuli zirenean, etxe berriak altxatzea erabaki zuten, herriari itxura berri bat emanenez, alegia. Horrela, 1.639tik 1641 era arte etxe franko altxatu zen, horretarako Nafarroako erresuman barrena eta bertze tokitan ere diru eskea egin zelarik. Hau ikusteko badauzkagu bi argibide edo obek: ki errateko bi inskripzio: luzeena Karnaxene-ko etxe antziran ikus dezakegu; etxe hau Alzate karrikako 27 an dago eta 1.641 urtean altxatua -

izan zen. Bertze inskripzioa Ilekqueta auzoko Ezkerrenea-n dago, 1.640 urtean egina berrau. Etxeak elkarren antza bazuaten eta hori Alzate 34 eko etxearen marrazkietan ikus daiteke, 1.640 urtean egina, eta Legia 62 koa ere. Plazan dagoen Erretenezaharra 1.639koa dugu eta bertzeak baino handiagoa. Bertze batzuk, fecha jakinik ez badute ere, urte beretsukoak direla erran genezake. Gisa honetako etxeak, baina modu errazagoan, XVIII mendea nahiko aintzindu arte eginkatu ziren. Dirudiekin, XVI mendearen azkenaldian edo guttienez Bera erre baino lehen, Hondarribin, Irunen, Goizuetan eta Lesakan egin ziren etxeen antzera eginak dira, eta herriari itxura berezia eman zioten.


Julio C. Baroja



EL AÑO DE 1639

Vera.

Erretenezak. Antes de la destrucción





Vern
 Calle de Alzate 34 casa n.º 1640

INHS LA VILLA DE BERASEO VEMO EN EL AÑO DE 1638 EN SERVICIO D

40%

B

SVMAGESTAD LA YZO MARTIN DE RIBAREN Y DOME/A DE AGVIRE 1640




10 62 Calle de 188

ANO DE 1639

CASA D APEZABAY
TA REDIFICAD POR
J.M.S. AÑO 1833

DEMBORA - PASAGARRIAK




arbola, muxikoak ematen dituena.
 hegazkiak paratzen duena.
 herrialdeen solas egiteko modua.
 indar guttikoak.
 behar den momentua.
 bat bestearenpean paratu.
 adin nahikoa ez duna.

nahi duena egin. - errezaten direnak.
 lotoitz aunitz, bat besten ondoren -
 malkoak botatzea, nekez edo piri-pirez.
 mate ez diren gauzak.

norengana zoaz?
 soinurik ez den tokian, sumatzen den
 gauza.

Hau dena betetzen duzueanean, lehemiziko lerroan, goitik bera
 ateratuko zaizue, munduan izan diren pakezale haundietako bat.



Ea letraz betea dagon kuadro hon
 tatik, ateratzen ahal dituzu 31
 senidetarteko.



